



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Berrizko Udala

2024ko apirilaren 17ko DEK-2024-00264 Alkatetza Dekretua, 2024ko jarduerak burutzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko oinarri orokorren eta espezifikoaren dirulaguntzen deialdia. BDNS (Identif.): 755644.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/755644>).

#### Lehenengoa. — Xedea

Berrizko udalaren oinarrietan jasota dagoen moduan, hiritargoko arlo bakoitzean, herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea dute helburu.

#### Bigarrena. — Onuradunak

- Pertsona fisikoak eta elkarten erregistroan alta emanda dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteak, baldin eta inskripzio hori eguneratuta badago dirulaguntzak eskatzeko unean.
- Dirulaguntzen xede izango diren arloekin zerikusia duten proiektuak edo jarduerak aurrera ematen dituztenak.

#### Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Jarduerak burutzeko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 141.zenbakia 2023ko uztailaren 21an).

#### Laugarrena. — Zenbatekoa

Arloa: *Jarduera fisikoa eta kirola*

- Kopuru osoa: 31.500 euro.
- Aurrekontu partida: 3410.48100.

Arloa: *Hezkuntza*

- Kopuru osoa: 18.500 euro.
- Aurrekontu partida: 3200.48100.

Arloa: *Kultura*

- Kopuru osoa: 10.000 euro.
- Aurrekontu partida: 3340.48100.

Arloa: *Berdintasuna*

- Kopuru osoa: 3.000 euro.
- Aurrekontu partida: 2316.48100.

Arloa: *Garapenerako lankidetzak*

- Kopuru osoa: 25.297,28 euro.
- Aurrekontu partida: 2318.48100.



## **Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea**

### *Lekua eta modua*

Udalaren egoitza elektronikoaren bidez ([www.berriz.eus](http://www.berriz.eus)) aurkeztu beharko dira. Honako prozedura hauek erabiliz:

- 610 Hezkuntza dirulaguntzak
- 606 Garapenerako lankidetzaren arloko dirulaguntzak
- 607 Berdintasunaren arloan diharduten dirulaguntzak
- 608 Kultura jardueretarako dirulaguntzak
- 609 Jarduera fisikoa eta kirola dirulaguntzak

### *Epea*

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30etik maiatzaren 31ra izango da. Berrizen, 2024ko apirilaren 17an. — Alkateak, Rolando Isoird Refoyo